



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VII. legegintzaldia

Iruña, 2007ko abenduaren 11

37. ZK.

A U R K I B I D E A

E S A I L A:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Jabeldura, Nafarroako Gobernuak adinekoei laguntzeko eginiko proposamenari buruzkoa, Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak egina (3. or.).
- Jabeldura, ekimen pribatuko zentro soziosanitarioek egiten duten kalitate-politikari buruzkoa, Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak egina (4. or.).
- Jabeldura, Gobernuak Bardeako tiro poligonoaren gainean duen iritziari eta hura kentzeko aurreikusita dituen ekimenei buruzkoa, Nafarroa Bai parlamentu-taldeak egina (5. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da azpiegitura, garraio eta komunikazioen foru plan estrategikoa presta dezan. Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (5. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da gaixo kronikoen eskakizunetara eta patologia berriek sorrarazten dituzten beharizunetara egokitzen den zerbitzu-zorro bat proposa dezan, zerbitzu horiek ez baitira egokitzen indarrean dauden dekretuetan xedatutakora. Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak aurkeztu du (7. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Film Commission bat abian jar dezan Nafarroan. Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (8. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da kultur turismoari buruzko lehen plan zuzendaria presta dezan. Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (9. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da beharrezkoak diren izapideak egin ditzan, halako moldez non espetxe berria funtzionamenduan jartzen denean Nafarroari espetxe arloan dagozkion eskumeneren transferentzia egina egonon baita. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (11. or.).
- Adierazpen instituzionala, hiesaren kontrako nazioarteko eguna dela-eta. Eledunen Batzarrak onetsia (12. or.).
- Adierazpen instituzionala, ezgaitasuna duten pertsonen nazioarteko eguna dela eta. Eledunen Batzarrak onetsia (13. or.).
- Adierazpen instituzionala, eguberri-argiztapena dela-eta. Eledunen Batzarrak onetsia (13. or.).

F SAILA:**Galderak:**

- Galdera, jakiteko zein den intsinis edo radiata pinuari eraso egiten dion izurriaren gaur egungo egoera eta Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak zer neurri hartuko dituen izurri horren prebentzio-rako eta kontrolerako, M.^a Gracia Iribarren Ribas andreak egina (14. or.).
- Galdera, “Bidezainen etxeak” izenekoei buruzkoa, Maiorga Ramírez Erro jaunak egina (15. or.).
- Galdera, Esako urtegiaren balizko handitzeari buruzkoa, Maiorga Ramírez Erro jaunak egina (15. or.).
- Galdera, Osasun Departamentuak Altsasuko osasun etxearen toki fisikoa eta bertan ematen diren zerbitzu-en kopurua handitzeko hartu behar dituen neurri zehatzei buruzkoa, Asun Fernández de Garaialde y Lazkano andreak egina (16. or.).
- Galdera, Osasun Departamentuak itxaron zerrendak murrizteko hartu behar dituen neurri zehatzei buruzkoa, Asun Fernández de Garaialde y Lazkano andreak egina (16. or.).
- Galdera, Foruzaingoaren buruaren egoerari buruzkoa, Amanda Acedo Suberbiola andreak egina (17. or.).
- Galdera, jakiteko zer aurreikuspen duen Nafarroako Gobernuak pertsona fisikoen ondareari buruzko zerga mantentzeari edo kentzeari dagokionez, Ion Erro Armendáriz jaunak egina (17. or.).
- Galdera, jakiteko zer kontusailen kargura bete diren joan den martxoaren 17ko manifestazioak sorturiko gastuak, Maiorga Ramírez Erro jaunak egina (18. or.).

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Jabeldura, Nafarroako Gobernuak adinekoei laguntzeko eginiko proposamenari buruzkoa.

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-NAFARROAKO EZKER BATUA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko azaroaren 26an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak aurkezturiko jabeldura, Nafarroako Gobernuak adinekoei laguntzeko eginiko proposamenari buruzkoa.

2. Jabeldura hau Osoko Bilkuran izapidetzea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2007ko azaroaren 26an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

JABELDURAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean,

ondoko jabeldura aurkeztu du Legebiltzarreko Osoko Bilkurarako:

Berriki, Nafarroako Ospitaleko Geriatria Zerbitzuko buruak eginiko ebaluazio bat agertu da; zerbitzu hori da Nafarroa guztian arlo horretan dagoen berriazko zerbitzu bakarra.

Nafarroako Ospitaleko Geriatria Zerbitzuak hogeit hamar ohe ditu esleituak; ohe horiek, iaz, 2006an, % 170eko okupazio-indizea izan zuten. Zenbateko horiek erakusten dutena da zaharrei laguntzeko baliabide gehiago eta bestelako irizpideak behar direla.

Horregatik eta beste arrazoi batzuk direla medio, badirudi beharrezkoa dela jakitea zer proposatzen duen Nafarroako Gobernuak gure gizartean gero eta handiagoa den behar horri aurre egiteko.

Iruñean, 2007ko azaroaren 19an

Foru parlamentaria: Ana Figueras Castellano

Jabeldura, ekimen pribatuko zentro soziosanitarioek egiten duten kalitate-politikari buruzkoa.

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-NAFARROAKO EZKER BATUA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko azaroaren 26an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak aurkezturiko jabeldura, ekimen pribatuko zentro soziosanitarioek egiten duten kalitate-politikari buruzkoa.

2. Jabeldura hau Osoko Bilkuran izapidetzea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2007ko azaroaren 26an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

JABELDURAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ekimen pribatuko zentro soziosanitarioek egiten duten kalitate-politikari buruzko ondoko jabeldura aurkeztu du Legebiltzarreko Osoko Bilkurarako:

Gizarte Gaietako Departamentuko teknikoek 2006 eta 2007an zehar Nuestra Señora del Rosario zahar-etxera –Gestión Asistencial Ribera, S.L. enpresak kudeatzen du– egindako bisiten ondotik egin dituzten aktetan agertzen diren egoerek kezka piztu dute parlamentarien elkarte honengan, hartu izan diren erabakiak direla-eta. Gure ustez, erabat arbuiagarria da zenbait erabakik, hala nola emandako zerbitzuaren kalitatea gutxitzea, egoiliarrei kuotak garestitzea eta oheak bikoiztea, ondorio izatea zahar-etxe hori kudeatzen duen enpresak ematen duen zerbitzua okerragoa izatea. Horrek, zahar-etxe egoiliarren eta beren familiartekoen alarma piztu du.

Parlamentu-talde honek familiartekoen desadostasuna eman nahi du ezagutzera, eta egoki irizten dio jabeldura bidez une honetan Parlamen-

tuan eztabaida bat egitea zahar-etxe horretan eta beste batzuetan jarraitutako politikaren inguruan; era berean, exijitzen dugu eztabaidan gutxienez hurrengo gaiak kontuan har daitezten:

1.- Egoiliarrek geletan dituzten bizigarritasun-baldintzen aldaketa.

2.- Langile kopuruaren ratioa laguntza behar duten egoiliarrekiko, une bakoitzean.

3.- Lan bidezko terapeuta, zeina Zarrakaztelura goiz eta arratsalde bakar batez joaten baita.

4.- Zenbaitetan, ohe bakarreko geletan bi ohe sartu nahi izan dira, familiartekoei eta egoiliarrei aurretik abisatu gabe, eta horien protestek eten dituzte saioak.

5.- Egiatzatu da apirileko eta maiatzeko egun batzuetan, bazkalorduan, afaria ere termoetan zegoela; gehienetan, larunbatetan eta igandetan.

6.- Pilulak ez diren ahozko farmakoak zaintzailiek eman izan dituzte, erizain profesional batek beharrean.

Kontu horiek agerian gelditu dira Gizarte Gaietako Departamentuko ikuskaritzak eginiko txostenetan eta horiek eragin dute jabeldura hau.

Gure ustez, adierazitako arazo horietako batzuk beste zahar-etxe batzuetan ere gertatzen direnez, arazook konponbidean jartzeko unea dugu, era arinean eta erabiltzaileak zein familiak pozik uzteko moduan.

Zahar-etxeek zerbitzu-baldintzarik hoberenak izatea izan da une oro gure apustua; izan ere, eta ez alferrik, pertsona talde oso ahul bati buruz ari gara.

Gizarte Gaietako Departamentuak kalitatearen berme izan behar du, eta oso zorrotz kontrolatu behar ditu entitate pribatuek emaniko zerbitzuak.

Iruñean, 2007ko azaroaren 19an

Foru parlamentaria: Ana Figueras Castellano

Jabeldura, Gobernuak Bardeako tiro poligonoaren gainean duen iritziari eta hura kentzeko aurreikusita dituen ekimenei buruzkoa.

NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko azaroaren 26an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko jabeldura, Gobernuak Bardeako tiro poligonoaren gainean duen iritziari eta hura kentzeko aurreikusita dituen ekimenei buruzkoa.

2. Jabeldura hau Osoko Bilkuran izapidetzea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2007ko azaroaren 26an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

JABELDURAREN TESTUA

Patxi Zabaletak eta Maiorga Ramírezek, Nafarroa Bai parlamentu-taldeko eledunek, Legebiltza-

rreko Erregelamenduaren 181. artikulua eta hurrengo babesean, honako jabeldura hau aurkeztu diote Nafarroako Gobernuari, Osoko Bilkuran eztabaida dadin:

Parlamentu honek sarritan agertu du Bardeako tiro poligonoa desegiteko beharra, eta 2008an amaituko da Defentsa Ministerioari tiro poligonoa erabiltzeko aukera ematen dion hitzarmena.

Horregatik, eta herritarrak kezkatzen dituen gaia denez, eta gutxi barru erabaki beharrekoa zalantzarik gabe, parlamentu-talde honek jabeldura aurkeztu dio Nafarroako Gobernuari, jakiteko zer jarrera duen eta zer ekimen aurreikusi dituen Bardeako tiro poligonoa desegin eta Parlamentu honetan adierazitako gehiengoaren borondatea bete dadin.

Iruñean, 2007ko azaroaren 20an

Foru parlamentariak: Maiorga Ramírez Erro eta Patxi Zabaleta Zabaleta

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da azpiegitura, garraio eta komunikazioen foru plan estrategikoa presta dezan.

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko azaroaren 26an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkezturiko mozio hau: Nafarroako Gobernua premiatzen da azpiegitura, garraio eta komunikazioen foru plan estrategikoa presta dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2007ko azaroaren 26an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 195, 196 eta 197. artikuluetan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du Osoko Bilkuran eztabaidatu eta onesteko, Nafarroako Gobernua premiatzen duena azpiegitura, garraio eta komunikazioen foru plan estrategikoa presta dezan.

Zioak

Nafarroako Foru Komunitatean hurrengo urteetan egin beharreko azpiegitura-garapenaren esparruan era arrazionalan eta koordinatuan aurrera egitearren, nahitaezkoa da Nafarroako Gobernuaren departamentuek gauzatu beharreko jarduketan plangintza egitea.

Kontuan hartuz Errepideei buruzko II. plan zuzendaria gutxi barru dela amaitzekoa eta gaine-

rako planak sakabanatuta daudela, beharrezkoa da hori ordenatzea eta arrazionalizatzea; lehentasun-mailak zehaztu behar dira, maila horiek ezarri beharra baitago azpiegituren garapena iraunkorra eta efizientea izan dadin.

Azpiegitura, garraio eta komunikazioen foru plan estrategiko bat prestatuta, Nafarroako Gobernuaren jarduketak kokatuta egonen diren tresna izanen da plangintza.

Horrela, plangintza estrategikoa eginda, arduradun politikoez eta Nafarroako gizarte osoak:

- Erabakiak hartzeko informazio egokia izaten ahalko dute. Horregatik, plangintzak aukera ematen du jarduketak irizpide eta lehentasun batzuen arabera ordenatzeko, eta beste arlo batzuetan dituen ondorioak nabarmentzen ditu. Bestalde, erabaki politikoaren fasea ere errazagoa gertatzen da, nahiz eta ez duten inola ere ardura politikoa ordeztzen.

- Benetako beharren kalkulu zehatza egiten ahalko dute, eta baliabideen esleitze efizientea ere bai.

Gardentasunez ikusten ahalko dute nola hartzen diren erabakiak, eta zuzeneko interesa duten sektore sozioprofesional eta ekonomikoek ez ezik, gizarte osoak ere irekia izanen du prozesuan parte hartzeko bidea. Parte-hartzea eta herritarrei kontuak emateko borondatea duten arduradun publiko-

ak oinarri dituen sistema baten ezaugarri da plangintza.

Departamentuen artean ados jartzeko oinarriak ere identifikatu eta zehaztu beharra dago, horrela esleitutako baliabideen jarraipena eta helburuen –sozialak, ingurumenekoak eta lurraldekoak– lorpenaren jarraipena egiteko.

Aurreko premisak abiapuntu, plangintza betiere garapenaren ardatz nagusi, proposatzen ari garen garraio eta komunikazioen foru plan estrategikoa tresna baliagarria, eraginkorra eta malgua bihurtzen da. Hori guztia dela-eta, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak ondoko mozioa proposatu du, Parlamentuaren osoko bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du azpiegitura, garraio eta komunikazioen foru plan estrategikoa presta dezan, balio dezan koordinatzeko, erlazionatzeko eta planifikatzeko Nafarroako Gobernuaren departamentuek hurrengo urteetan izanen dituzten azpiegitura-proiektuen eta -jarduketan exekuzioa, bai eta departamentuok hurrengo urteetan garraioaren eta komunikazioaren arloan izanen dituzten politiken exekuzioa ere.

Iruñean, 2007ko azaroaren 16an

Eleduna: Roberto Jiménez Alli

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da gaixo kronikoen eskakizunetara eta patologia berriek sorrarazten dituzten beharriazunetara egokitzen den zerbitzu-zorro bat proposa dezan, zerbitzu horiek ez baitira egokitzen indarrean dauden dekretuetan xedatutakora.

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-NAFARROAKO EZKER BATUA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko azaroaren 26an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak aurkezturiko mozio hau: Nafarroako Gobernua premiatzen da gaixo kronikoen eskakizunetara eta patologia berriek sorrarazten dituzten beharriazunetara egokitzen den zerbitzu-zorro bat proposa dezan, zerbitzu horiek ez baitira egokitzen indarrean dauden dekretuetan xedatutakora.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2007ko azaroaren 26an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko.

Zioen azalpena

Aurreko legegintzaldian, Parlamentu honetan, zaharrei zaintza podologikoak egitera bideratutako laguntza prebentiboarekin zerikusia zuen proposamen bat eztabaidatu zen. Eskaera zehatza zen Osasunbideak prestazio hori arau zezala. Ekimena aurkeztearen arrazoia izan zen profesionalen ustez intrusismoa zegoela jubilatuen elkartean. Proposamen hark ez zuen Legebiltzarraren nahikoa babes lortu.

Profesionalek, hala erizainek nola gizarte-lan-gileek, zaharrek egiten duten lanak agerian uzten du Osasunbideak laguntza hori berehala arautu behar duela.

Behaldekoko gorputz-adarretako patologiak edozein adinetan ager badaitezke ere, horiek

zaintzea bereziki garrantzitsua da zaharren kasuan.

Zahartze-prozesuaren ondorioak, gorputzaren eraldaketak, zenbait osasun arazoren agerpenak, esaterako artrosia, hezurren deskaltzifikazioa, arazo baskularrak edo diabetesa, areagotu egiten ditu oinetako arazoak izateko aukerak.

Oinak osasuntsu izateak zaharrei segurtasunez ibiltzen lagunduko die, erorketarik ez izateko izanen zaie baliagarri, aktibo eta autonomo jarraiaraziko die eta, horren guztiaren ondorioz, menpekotasun gutxiago izanen dute.

Podologia zerbitzuak, oro har, ez daude osasun publikoan jasota, prozesu oso jakinetan izan ezik.

Orain arte, finantzaketa, gure erkidegoan, toki entitateei eta jubilatuen elkartei dirulaguntzak emanez egin izan da. Laguntza horiek desberdinak dira. Laguntza podologikoa norberak ordaintzearen kostua 30 eta 45 euro bitartekoa da.

Horregatik guztiagatik, ondoko erabaki proposamena aurkeztu dugu:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du hiru hilabeteko epean zerbitzu-zorro bat proposa dezan egokituko dena gaixo kronikoen eskakizunetara eta patologia berriek sorrarazten dituzten beharriazunetara, eta kontuan izanen dituen protesiak, ortesiak eta indarrean diren dekretuetan araututakora egokitzen ez diren gaixo kronikoen protesi bereziak. Era berean, zerbitzu-zorroan sartuko dira elikagai bereziak finantzatzeko bideak, aho-hortzetako osasun laguntza-aren zabaltzea, gaixoen garraioa eta abar.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du berehala berma diezazkien podologia zerbitzuak, Osasunbidearen bidez, podologia arazoak izateko arriskua duten herritarrei, osasun laguntza prebentiboa helburu, eta murrizteko, horrela, arazo podologikoak dituzten pertsonen ezgaitasuna eta mugikortasun eza. Esku-hartze horiek, erabilzailearen behararen arabera, era ambulatorioan edo etxean egiten dira.

Iruñean, 2007ko azaroaren 14an.

Foru parlamentaria: Ana Figueras Castellano

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Film Commission bat abian jar dezan Nafarroan.

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko azaroaren 26an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkezturiko mozio hau: Nafarroako Gobernua premiatzen da Film Commission bat abian jar dezan Nafarroan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2007ko azaroaren 26an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Roberto Jiménez Alli, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldearen eledunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 195. artikuluan eta hurrengoetan xedatuaren babesean, honako mozioa aurkeztu du, Legebiltzarraren Osoko Bilkuran eztabaida eta onets dadin. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Film Commission bat abian jar dezan Nafarroan.

Zioen azalpena

Ikus-entzunezko arteen eta zinematografiaren munduak izugarriko aurrerapena egin du azken urteetan, halako moduz non gure garaiko ezaugarrietako bat bihurtu baita. Gure inguruko herrialde eta eskualde garatu asko era bateko eta besteko entitateen bidez saiatu dira mundu horren garapena bultzatzen. Ikus-entzunezko arteen ente edo institutu bat, bere baitan hartuko dituen filmotekarekin, mediatekarekin eta fonotekarekin zerikusia duten jardunak; Film Commission hori bera; bai eta ikus-entzunezko arteen arloko balizko baliabideen zentro eta sorkuntza tailer bat ere; arte ederraren esparruan ekimenak gauzatuko lituzkeen entitate bat, lankidetzan arituko litzatekeena goi mailako ikasketa-zentroekin eta lanbide heziketako zentroekin, ikus-entzunezko sorkuntzaren arloan lehiaketak, sariketak eta jaialdiak antolatuko lituzkeena: horiek denak sektorearen ikuspegi oro-

kor batetik kontuan hartu beharreko alderdi zehatzak lirateke.

Aurreko hori guztia posible ez den bitartean, ez da komeni geldi egotea; zenbait helburu partzial lortzeko bideari ekin behar zaio gutxienez ere, betiere arlo honetan etorkizunean eginen diren ekintza sakonagoekin ongi egokitze modukoak eta horientzat oztopo izan gabe.

Ekimen horietako bat Nafarroako Film Commissiona sortzearekin zerikusia duena da, etorkizun hurbil antzekoan gauzatu daitekeen plan sakonago baten lehenbiziko ekimena.

Herrialde garatuenetako gehientsuenek dituzte Film Commission edo zine-bulego horiek. Espainian, badira bai egitura zentrallean, bai autonomia erkidego batzuetan ere. Konpainia zinematografikoek eta ikus-entzunezkoen industriaren edo sorkuntzaren beste sektore batzuek lotura bat behar izaten dute agintariekin eta tokian tokiko zerbitzuekin; hori funtsezkoa izaten da ekoizpen bat abian jartzeko eta burutzeko, bai eta filmatze lekuak hautatzeko ere. Behar horiei erantzuteko sortu ziren aipagai ditugun bulegoak. Sortu zirenetik, aipagai ditugun Film Commission horiek mundu osoan nahitaezko tresna bilakatu dira ekoizpen zinematografikoa sustatzeko, erkidego bat eta dituen baliabideak harremanetan jartzen baitituzte ekoizle zinematografikoekin.

Hemen erakunde sustatzailerik ez badago ere, ez dira gutxi Nafarroan filmatu diren ekoizpen zinematografikoak. Paisaia-baliabideen ugaritasuna eta toki natural nahiz historikoen oparotasuna dela-eta, ekoizle nazional nahiz nazioartekoek Nafarroa aukeratu izan dute beren ekoizpenetarako, leku egokia dela iritzita. Gainera, laurogeita hamarreko hamarkadatik aurrera, Nafarroako zinematografia dezente hazi da, eta horrek etorkizun itxaropentsua zabaldu dio sortzen ari den sektore zalantzarik gabe garrantzitsu horri; garrantzitsua, herri honetan zerbitzuen sektorearen aldeko apustua azpimarratu nahi baita.

Ikuspegi bikoitz horretatik, egokia dirudi Nafarroako Film Commissiona sortu eta abian jartzea, hau da, ikus-entzunezko sektorearen zerbitzuko bulego teknikoa, Nafarroako Foru Komunitatea garatzea eta sustatzea helburu; Nafarroa plato zinematografiko gisa ulertuta, film luzeak, laburrak, dokumentalak, publizitate iragarkiak, argazki saioak eta abar ekoizteko.

Kultura eta Turismo kontseilariak berak, legegintzaldi honetako ildo nagusiak aurkezteko egin zuen agerraldian, Film Commissionarena hurrengo urteotan abian jarri beharreko berariazko ekintzatzat jo zuen. Egokia dirudi ekimen hori lehenbailehen gauzatzea, 2008rako aurrekontuetan isla izan dezan. Hori guztia dela-eta, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak ondoko mozioa aurkeztu du, Parlamentuaren osoko bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Nafarroako Film Commissiona sortu eta abian jar dezan, hau da, ikus-entzunezko sektorearen zerbitzuko bulego teknikoa, Nafarroako Foru Komunitatea plato zinematografiko gisagaratzea eta sustatzea helburu, film luzeak, laburrak, dokumentalak, publizitate iragarkiak, argazki

saioak eta sektorearekin zerikusia duten beste jarduerak batzuk ekoizteko.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du jarduketa plan orokor bat aurkeztu dezan hiru hilabeteko epean, zeinak gutxienez ere honakoak jaso beharko baititu:

- Helburuak.
- Antolaketa eta plan estrategikoa.
- Beharrei buruzko programa, honakoei dagoenikenez: espazioak, organigrama, langileak, aurrekontua, azpiegitura eta finantzaketa.
- Lege esparru aurreikusia eta kudeaketa erdua.

Iruñean, 2007ko azaroaren 20an

Eleduna: Roberto Jiménez Alli

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da kultur turismoari buruzko lehen plan zuzendaria presta dezan.

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko azaroaren 26an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkezturiko mozio hau: Nafarroako Gobernua premiatzen da kultur turismoari buruzko lehen plan zuzendaria presta dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2007ko azaroaren 26an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Roberto Jiménez Alli, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldearen eledunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 195. artikuluan eta hurrengoetan xedatuaren babesean, honako mozioa aurkeztu du, Legebiltzarraren Osoko Bilkuran eztabaida eta onets dadin, Nafarroako

Gobernua premiatzeko turismo kulturalari buruzko lehen plan zuzendaria presta dezan.

Zioen azalpena:

Espainiak nagusitasun handia du turismoaren arloan. Horren frogagarri, hartzen dituen 58,4 milioi turistak, turismoak BPGn duen pisua (% 11) eta sektore horretan lan egiten duen jende kopurua (herritarren % 12); horrela, 2006an Espainia bigarren helmuga turistikoa izan zen nazioartean. Baina zenbateko horiek ez dira kasualitatez lortzen. Horren lagungarri dira Espainiaren potentzialtasun naturalak eta kulturalak, eta turismoaren arloko politika ausarta, zeinak hamarkadetako eskarmentua eta epe luzeko plangintza baititu oinarri; horixe erakusten du Nazioko Gobernuak berriki onetsi duen "Turismo plana, 2020 helburu" planak. Planaren helburuak dira gizarte- eta ekonomia-etekinak handitzea, Espainiako helmuga berrietan turismoa bultzatzea eta inguru naturalaren eta kulturalaren kalitatea hobetzea, ingurumenean izaniko eragin negatiboa gutxituz. Era berean, jarduketa handi horren bost ardatz nagusiak honakoak dira: ekonomia turistiko berri baten aldeko apustua, bezeroaren balioa, eredu turistikoaren iraunkortasuna, ingurune lehiakor baten sustapena eta nagusitasun partekatu berria.

Foru erkidegoa oso berandu heldu da gure herriaren garapen turistikora. Eta, irizpide egokiz, iritsi zenean, ez zuen ohiko parametroetan oinarritutako turismoaren alde egin, baizik eta landa inguruneari lotutako turismo berde baten alde egin zuen apustu, baina beste alderdi batzuk baztertu gabe, hala nola kulturala. Horren ondorioz, kopuruak nabarmen hobetu dira, bai bisitarien kopuruari dagokionez, bai lortutako dirusarrerai dagokionez, eta ez dugu aipatuko turismoak BPGaren zer ehuneko egiten duen eta arlo horretan lan egiten duten herritarren ehuneko. Baina, hobetzeko tarte handia dago oraindik, eta lurraldearen aukerak handiak dira oso.

Foru erkidegoa historiaz, artez eta tradizioz betetako lurraldea dugu, eta beste leku batzuetan urria eta hemen hain ugaria den balio horrek egiten du Nafarroa, hain zuzen ere, sortzen ari den turismo berriaren beharretara ongi baino hobeki egokitutako lurraldea. Errealitate horrek egoera onean kokatzen gaitu inbertsioak eta bizi-maila handia lortzeko, baina ez da behar adina aprobetxatzen bisitariak gurera erakartzeko. Ahaztu egiten dugu indar hori, aktibo hori, daukagun funts kultural hori, zeina aberastasun-iturri eta aukera bihur baitezakegu gure ondare historiko eta kulturalari eusteko.

Bestalde, kulturaren eta turismoaren arloko politikak bide ezberdinak ibili dituzte; ez dira egoki lotu, eta turismo kulturala landa-turismoarekin, naturako turismoarekin edo hirikoarekin bateratzeko aukerak eragiten dituen sinergiak ere ez dira behar bezala aprobetxatu.

Nafarroak egoera pribilegiatua du turismo kulturala proiektatzeko eta planifikatzeko; horretarako oinarri ditu bere baliabideen aberastasuna, Europa eta Espainian turismo mota honetan metatutako eskarmentua, turismo era honen eskaera gero eta handiagoa herrialde garatuetan eta Nafarroak kanpoan duen irudi ona. Aukera hori ere ematen du diziplina biak departamentu bakarrean bateratuta egoteak, horrek errazago ahalbidetzen baititu norabide bereko politikak.

Nafarroak baliabide kultural ugari ditu: katedralak, elizak, monasterioak, gazteluak, jauregiak, museoak, hiri monumentalak, ondare arkitektoniko, industrial eta etnografikoa, unibertsitateak, artisautza, kultura-zentroak, erlijio-festak eta erromesaldiak, ekitaldi artistikoak, jaialdiak, folklorea, gastronomia. Badu, orobat, lehen mailako produktu kultural bat, nola baita Donejakue Bidea. Hori dena aberastasuna da, eta antolatu, ordenatu, balioa nabarmendu eta kudeatu egin behar da.

Turismo kulturala da industria turistikoaren arloan lasterren hazten ari den segmentua, eta lehiakortasun handiko segmentua da. Beste turis-

mo era batzuekin konbina daiteke, eta kalitatea eta eskaintza pertsonalizatua ditu oinarri. Ez da urtaroren araberako turismoa, eta horrek erakargarriagoa egiten du eta norberaren gauzen balioa zaintzen eta areagotzen laguntzen du, bai eta lurraldearen gune oso handiak ekonomikoki eta sozialki berrerekatzen laguntzen ere.

Eskaerari dagokionez, turismo kulturalak ezauzgarri ditu turisten batez besteko erosahaldimen handiagoa –merkatua modu orokorrean erreferentzia hartuta–, ohiko turistenak baino egonaldi luzeagoak eta inguruarekiko errespetu handiagoa. Aldiz, azpiegituren eta zerbitzuen maila handiagoa eskatzen du; hori, hala ere, berdindu eta gainditu egiten da aipatutako gainerako abantailekin.

Espainiako Turismoko Idazkaritza Nagusiak eginiko azterlan berriek berresten dutenez, gora egiten ari den turismo mota bat da, turista horiek ohiko turistek halako bi gastatzeko ahalmena dute, eta turismo era hori sustatzen duen herrialdeak irudi oso positiboa proiektatzen du.

Hori guztia horrela, eta azken urteotan modu isolatuan eginiko ekintzen aitorpena abiapuntu, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak ondoko mozioa proposatu du, Parlamentuaren hurrengo Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du turismo kulturalari buruzko lehen plan zuzendaria presta dezan, Nafarroako Foru Komunitateak arlo horretan dituen potentzialtasunak baliarazi ahal izan daitezkeen. Plan horrek gutxienez ere honakoak jaso beharko ditu:

- 1.- Nafarroako turismo kulturalaren azterketa eta diagnosis.
- 2.- Gure inguruarekiko azterketa konparatua.
- 3.- Plan zuzendaria.
 - Helburuak
 - Denbora helburua.
 - Abian jarri beharreko ekintzak
 - Aurreikusitako zenbateko ekonomiko orokorra.

Plana abian jartzeko behar diren langile- eta aurrekontu-baliabideak.

2. Nafarroako Parlamentuak sei hilabeteko epea emanen dio Nafarroako Gobernuari plan hori presta dezan; plana Legebiltzarrean aurkeztu beharko da ezagutu eta onesteko.

Iruñean, 2007ko azaroaren 20an

Eleduna: Roberto Jiménez Alli

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da beharrezkoak diren izapideak egin ditzan, halako moldez non espetxe berria funtzionamenduan jartzen denean Nafarroari espetxe arloan dagozkion eskumenen transferentzia egina egonen baita.

NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko azaroaren 26an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko mozio hau: Nafarroako Gobernua premiatzen da beharrezkoak diren izapideak egin ditzan, halako moldez non espetxe berria funtzionamenduan jartzen denean Nafarroari espetxe arloan dagozkion eskumenen transferentzia egina egonen baita.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2007ko azaroaren 26an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeak Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduan xedatutakoaren arabera, ondoko mozioa aurkeztu nahi du, Nafarroako

Parlamentuko Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozka dadin.

Zioak:

Nafarroako espetxe berria izanen denaren proiektuaren aurrean, eta oraingoa baino askoz handiagoa izanen den herritar presoentzako taldearen bizibaldintzak, instalazioak eta zerbitzuak ahal den hobekien bermatze aldera, horregatik guztiarengatik, mozio hau aurkeztu nahi du:

Erabaki proposamena:

1. Nafarroako Parlamentuak eskatu egiten dio Nafarroako Gobernuari behar diren izapide guztiak egin ditzala Nafarroari dagozkion espetxeetako eskuduntzen eskualdatzea espetxe berria lanean hasten denerako prest egon dadin.

2. Iruñeko espetxean dauden herritarren osasun zerbitzuaren egoeraren larritasuna kontuan hartuta, Nafarroako Parlamentuak eskatu egiten dio Nafarroako Gobernuari Nafarroari dagozkion espetxe erakundeentzako osasun zerbitzu eta erakundeentzako eskumen eskualdatzea berehala eska dezala.

Iruñean, 2007ko azaroaren 21ean

Eledunak: Patxi Zabaleta Zabaleta eta Maiorga Ramírez Erro

Adierazpen instituzionala, hiesaren kontrako nazioarteko eguna dela-eta.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2007ko azaroaren 26an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

"Nafarroako Parlamentuak hiesaren kontrako borrokaren nazioarteko egunaren omenezko ospakizunekin bat egin nahi du. Egun hori, urtero bezalaxe, abenduaren 1ean ospatzen da, herritarrek gaixotasun horretaz eta prebentzioaren garrantziaz kontzientziatzeko asmoz.

Gaur egun, beste inoiz baino gehiago, erakunde guztiak behartuta gaude gaixotasun hori desagerrarazteko langintzari eustera, zeren eta, adituek eginiko azken txostenen arabera, hiesaren izurria, kontrolpetik urrun soilik ez, baizik eta hedatzen ari baita, 2004an 3,9 milioi kasu berri agertzetik 2006an 4,3 milioi kasu berri erregistratzeraino. Espainian eta Nafarroan ere, hiesa gora ari da egiten, prebentzio-politikak gorabehera, eta erakunde nahiz elkarte asko isilpean baina eten-gabe arlo horretan lanean ari diren arren.

Jende askok, hiesak jotakoen % 40 inguruk, birusaren eramaile direnik ere ez dakite. Beraz, 1981ez geroztik 20 milioi pertsona baino gehiagoren heriotza eragin duen eritasun honen aurrean ez dugu zainketa-lan ernea lasaitu behar. Zeregin honetan guztiok esku hartu behar dugu, eta ez soilik osasun-arloko profesionalek, arduradun politikoek eta erakunde nahiz elkarteek. Gizarte osoari dagokion ardura da.

Garrantzitsua da, gaixotasun honen prebentzioaren ikuspegitik, kalitatezko heziketa afektibosexual baten aldeko kanpainak egiteari eustea, zeren eta gure gizartean gertatzen diren GIB-

kutsatze gehienak sexu-harremanen bitartezkoak izaten baitira. Ildo honetatik, gogoan izan behar da azken hamarkadetan beherakada nabarmena izan dutela sexu-transmisiozko infekzioek eta gaixotasunek, baina beherakada hori 2002tik aurrera gelditu egin dela, hein handi batean, prebentzio-jokamoldeak lasaitu izateagatik. Nerabeak eta gazteak talde bereziki babesgabeak dira GIB/hiesaren ondoriozko infekzioaren eta sexu-transmisiozko beste gaixotasunen aurrean. Horrela, bada, neurriak hartzen segitu beharra dago, herritarrek ikas dezaten hartzen dituzten arriskuak behar bezala ebaluatzen. Gazteen artean metodo antikontzeptiboak erabilerari sustatzen duten neurriak behar dute izan; batez ere, preserbatiboaren erabilerari buruzkoak, aldi berean eragozten baititu nahi ez diren haurdunaldiak, GIBaren ondoriozko infekzioa eta sexu-transmisiozko beste infekzio batzuk.

Hiesaren aurkako egun honetan, Nafarroako Parlamentuak ekarpen oso positibo gisa goraiatu nahi du administrazio publiko guztiek, osasun arloko profesionalek eta gobernuz kanpoko erakundeek nahiz gizarte zibileko beste egitura batzuek (hala nola Hiesaren aurkako Nafarroako Batzorde Herritarrek eta Sare Elkarteak) gaixotasun hau desagerrarazteko eginiko lana.

Azkenik, Nafarroako Parlamentuak herritar guztiei dei egiten die abenduaren 1a ardatz gisa harturik antolatzen diren jarduera guztietan parte hartzera".

Iruñean, 2007ko azaroaren 26an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Adierazpen instituzionala, ezgaitasuna duten pertsonen nazioarteko eguna dela eta.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2007ko azaroaren 26an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

"Abenduaren 3an ospatzekoa da ezgaitasuna duten pertsonen nazioarteko eguna. Hori dela-eta, Nafarroako Parlamentuak gogorarazi nahi du zein egoera bizi eta pairatzen duten milioika pertsonak Espainian, eta horietatik milaka batzuek Nafarroan.

Aztertu eta aitortu beharrekoa da gure herrian ezgaitasunak eragiten duen gizarte-errealitatea, kopuruak izugarriak baitira: hiru milioi eta erdi pertsona, hots, biztanleriaren ehuneko 9, ezgaituak dira. Lau espainiarretik batek harreman zuzena du ezgaitasunarekin, eta oraindik asko dira ia egunero beren aukera, potentzial eta eskubideak nabarmen mugatuta dituzten pertsonak, beste edozein herritarrek dituen eskubide eta aukera berberen erabilera erreala galarazten zaienean.

Aurten bereziki harro sentitzen gara abenduaren 3a indarrean dauden legegintzako zenbait neurriekin ospatu ahal izateaz; besteak beste, Gizarte Zerbitzuei buruzko Foru Legea, Menpeko-tasun egoeran dauden pertsonen buruzko Estatu-ko Legea, Zeinu hizkuntzari eta ahozko komunika-

zioa babesteari buruzko Legea, edo bestelako neurri batzuk, garrantzi gutxiagokoak ez direnak, hala nola "haurren txekea" deritzona 3.500 euro-raino igotzea, jaioberriak nolabaiteko ezgaitasunen bat izanez gero. Halaber, ezin ahaztuzko beste hobekuntza bat da, adibidez, ezgaitasuna duten pertsonen enplegu publikoa lortu ahal izatea.

Ezgaitasuna duten pertsonen eginiko erreibindikazio historiko, egoki eta zuzen horiek guztiak eskubide bihurtu dira, eta horiek dira, zalantzarik gabe, erakunde publiko guztiek berdintasuneranzko urratsak berdintasunean egiteko daukaten kezka eta konpromisoaren norainokoaren erakusgarri onena.

Horregatik guztiagatik, Nafarroako Parlamentuak zalantzarik gabe deritzo badagoela arrazoirik abenduaren 3a ospatzeko, alderdi politiko eta erakunde guztien artean pertsona horien eta beren familien bizitzari bultzada suspertzailea eta duintasuna emateko langintzari eusteko konpromiso irmoz eta itzaropenez".

Iruñean, 2007ko azaroaren 26an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Adierazpen instituzionala, eguberri-argiztapena dela-eta.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2007ko azaroaren 26an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

"Nafarroako Parlamentuak aldarrikatzen du zaindu behar dela administrazio publikoaren erai-kinetako eguberri-argiztapena Espainiako Energiaren Kudeaketarako Agentziaren gomendioen ara-

berakoa izatea eta argiztapen horretarako erabil-tzea aleko potentzia baxuko lanparaz hornituriko figurak eta apaingarriak, bai eta zuntz optikoz, hologramaz, LEDez edo ordezkiko sistemaz osaturiko apainketa-sortak ere".

Iruñean, 2007ko azaroaren 26an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

F saila:
GALDERAK

Galdera, jakiteko zein den intsinis edo radiata pinuari eraso egiten dion izurriaren gaur egungo egoera eta Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak zer neurri hartuko dituen izurri horren prebentziorako eta kontrolerako.

M.^a GRACIA IRIBARREN RIBAS ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko azaroaren 26an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea M.^a Gracia Iribarren Ribas andreak aurkeztutako galdera, jakiteko zein den intsinis edo radiata pinuari eraso egiten dion izurriaren gaur egungo egoera eta Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak zer neurri hartuko dituen izurri horren prebentziorako eta kontrolerako.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Landa Garapenerako eta Ingurumeneko Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2007ko azaroaren 26an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari María Gracia Iri-

barren Ribas andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 186. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zioak:

Hedabideetan agerturiko informazio baten arabera, 2.500 hektarea intsinis edo radiata pinu berrogeialdian daude. Hori dela eta, parlamentutalde honek hauxe jakin nahi du:

Galderaren testua

Zein da intsinis edo radiata pinuari eraso egiten dion izurriaren gaur egungo egoera eta departamentuak zer neurri hartuko ditu izurri horren prebentziorako eta kontrolerako?

Iruñean, 2007ko azaroaren 20an

Foru parlamentaria: María Gracia Iribarren Ribas

Galdera, “Bidezainen etxeak” izenekoei buruzkoa.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko azaroaren 26an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, “Bidezainen etxeak” izenekoei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2007ko azaroaren 26an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Errok, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, Osoko Bilkuran ahoz erantzun diezaion:

“Bidezainen etxeak” izenekoei buruz, parlamentari honek honako hau jakin nahi du:

Nafarroako Gobernuaren jarduketa aurreikuspena, aipatu etxebizitzetxei dagokienez.

Iruñean, 2007ko azaroaren 21ean

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

Galdera, Esako urtegiaren balizko handitzeari buruzkoa.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko azaroaren 26an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, Esako urtegiaren balizko handitzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2007ko azaroaren 26an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Errok, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, Osoko Bilkuran ahoz erantzun diezaion:

Esako urtegiaren balizko handitzeari buruz, foru parlamentari honek hau ezagutu nahi du:

Gobernuak gai horri buruz duen iritzia eta horri buruz dauzkan eraikuntzari eta segurtasunari buruzko txostenak.

Iruñean, 2007ko azaroaren 21ean

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

Galdera, Osasun Departamentuak Altsasuko osasun etxearen toki fisikoa eta bertan ematen diren zerbitzuen kopurua handitzeko hartu behar dituen neurri zehatzei buruzkoa.

ASUN FERNÁNDEZ DE GARAIALDE Y LAZKANO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko azaroaren 26an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Asun Fernández de Garaialde y Lazkano andreak aurkeztutako galdera, Osasun Departamentuak Altsasuko osasun etxearen toki fisikoa eta bertan ematen diren zerbitzuen kopurua handitzeko hartu behar dituen neurri zehatzei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osasun Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2007ko azaroaren 26an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Asun Fernández de Garaialde andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko Osasun kontseilariak Osasun Batzordean ahoz erantzun dezan:

Zer neurri zehatz hartu behar ditu Osasun Departamentuak Altsasuko osasun etxearen toki fisikoa eta bertan ematen diren zerbitzuen kopurua handitzeko?

Iruñean, 2007ko azaroaren 21ean.

Foru parlamentaria: Asun Fernández de Garaialde y Lazkano

Galdera, Osasun Departamentuak itxaron zerrendak murrizteko hartu behar dituen neurri zehatzei buruzkoa.

ASUN FERNÁNDEZ DE GARAIALDE Y LAZKANO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko azaroaren 26an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Asun Fernández de Garaialde y Lazkano andreak aurkeztutako galdera, Osasun Departamentuak itxaron zerrendak murrizteko hartu behar dituen neurri zehatzei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osasun Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2007ko azaroaren 26an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Asun Fernández de Garaialde andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko Osasun kontseilariak Osasun Batzordean ahoz erantzun dezan:

Zer neurri zehatz hartu behar ditu Osasun Departamentuak itxaron zerrendak murrizteko?

Iruñean, 2007ko azaroaren 21ean.

Foru parlamentaria: Asun Fernández de Garaialde y Lazkano

Galdera, Foruzaingoaren buruaren egoerari buruzkoa.

AMANDA ACEDO SUBERBIOLA ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko abenduaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Amanda Acedo Suberbiola andreak aurkeztutako galdera, Foruzaingoaren buruaren egoerari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2007ko abenduaren 10ean

Jarduneko Lehendakaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Amanda Acedo Suberbiola andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduen babesean, ahoz erantzuteko gaurkotasan handiko galdera hau aurkeztu du, Legebiltzarrean

abenduaren 13an eta 14an egitekoa den Osoko Bilkuran eztabaidatua izan dadin. Galderaren xedea da jakitea zer egoeratan dagoen Foruzaingoaren burua.

Zioak:

Foruzaingoaren burua dela-eta zenbait informazio agertu dira komunikabideetan; hori horrela, honakoa nahi dut ahoz erantzutea Nafarroako Parlamentuaren hurrengo Osoko Bilkuran:

Zein da Foruzaingoaren buruaren egoera? Kontzeptu guztiak kontuan hartuta, zein ditu ordainsariak (bai dirutan, bai espezetan)? Nor aritzen da postu horretan? Zer egoeratan ari da? Zein izan da erabili den lege-euskarria Nafarroako Gobernuak hartutako erabakiak justifikatzeko, bai Alfonso Fernández Díez jaunaren izendapena, bai horren behin-behineko ordezkorena? Zer erabaki hartu behar ditu Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuak?

Iruñean, 2007ko azaroaren 23an

Foru parlamentaria: Amanda Acedo Suberbiola

Galdera, jakiteko zer aurreikuspen duen Nafarroako Gobernuak pertsona fisikoen ondareari buruzko zerga mantentzeari edo kentzeari dagokionez.

ION ERRO ARMENDÁRIZ JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko abenduaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ion Erro Armendáriz jaunak aurkeztutako galdera, jakiteko zer aurreikuspen duen Nafarroako Gobernuak pertsona fisikoen ondareari buruzko zerga mantentzeari edo kentzeari dagokionez.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2007ko abenduaren 10ean

Jarduneko Lehendakaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

GALDERAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteko eledun Ion Erro Armendarizek, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduan xedatuaren babesean, gaurkotasaneko ondoko ahozko galdera aurkeztu du, hurrengo Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

Espainiako Gobernuak lehendakari Rodríguez Zapatero jaunak iragarri du pertsona fisikoen ondareari buruzko zerga kendu nahi duela.

Nafarroako aurrekontu orokorren foru legearen proiektuan aurreikusten denez, 2008. urtean 65.865.000 euro bilduko dira zerga horren bidez.

Zenbateko garrantzitsua da, eta 2007. urtearekin alderatuta, %22,82 igotzen da. Gehikuntza

nabarmen horrek adierazten du zerga horrek dirua biltzeko ahalmena berreskuratu duela.

Hori dela-eta, Nafarroako Gobernuak hau erantzutea nahi dugu:

Zer aurreikuspen du Nafarroako Gobernuak pertsona fisikoen ondareari buruzko zerga mantentzeari edo kentzeari dagokionez?

Zerga hori kentzearen aldekoa bada, noiz du kentzekoa eta zein dira erabaki hori hartzeko kontuan hartzen dituen arrazoiak?

Iruñean, 2007ko abenduaren 10ean

Foru parlamentaria: Ion Erro Armendáriz

Galdera, jakiteko zer kontusailen kargura bete diren joan den martxoaren 17ko manifestazioak sorturiko gastuak.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko abenduaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, jakiteko zer kontusailen kargura bete diren joan den martxoaren 17ko manifestazioak sorturiko gastuak.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2007ko abenduaren 10ean

Jarduneko Lehendakaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Patxi Zabaleta Zabaletak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuarekin bat, ahoz erantzuteko honako ezohiko galdera aurkeztu du, abenduaren 13rako eta 14rako deitutako Osoko Bilkurarako, Nafarroako Gobernuko lehendakari Sanz jaun txit garaik erantzun dezan:

Zer kontusailen kargura bete dira joan den martxoaren 17ko manifestazioak sorturiko gastuak?

Iruñean, 2007ko abenduaren 10ean

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro



NAFARROAKO PARLAMENTUKO
ALDIZKARI OFIZIALA

HARPIDETZA ORRIA

Izen-deiturak

Helbidea

Telefonoa *Hiria*

P. K. *Probintzia*

Ordaintzeko:

Dirua Nafarroako Kutxako 2054/0000 41 110007133.9 zenbakiko kontu korrontera igorri edo bertan sartu.

HARPIDETZAREN PREZIOA ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA	IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIOA NAFARROAKO PARLAMENTUA «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Navas de Tolosa, 1 31002 IRUÑA
Urtebete 45,15 euro	
Aldizkari Ofizialaren prezioa, aleko 1,18 »	
Bilkura Egunkariaren prezioa, aleko 1,34 »	